


# Zoonomia

## Nerea Arrien

Pamiela Poesia, 54

XABIER LETE VI. Poesia Saria

978-84-9172-291-5

2022. urtea - 112 or. - 15x21 cm

14,00 €

«Atseginez, dibertimenduz eta plazerez irakurtzen den poema liburua da, tematikaren garapenak dinamika erakargarria duelako, eta estiloak naturaltasun eta edertasun minimalista.

Gaiari dagokionez, emazte/ama gaztearen hausnarketa ezberdinei ematen die bide, tartean kontziliazioa eta etxekolanen partekatzearen auziari, besteak beste. Sei ataleko egituran zehar, maitasunaren eta desioaren, gizon eta emakumeen erreturekin batera, familiaren eta haur haztearen nahiz eguneroko bizitzaren auziak jorratzen ditu ingenio, ironia eta umore fi nez, baina baita sakontasunez ere, liburuan oinazea, ukitu tragikoa eta benetakotasuna nabariak direnez.

Poetak bere barneko emozioen adierazpide bilakatzen ditu animaliak, bestiario pertsonal bat osatzeraino, tradizioaren, zientziaren, esperientzia kulturalaren eta hausnarketa pertsonalaren emaitza bihurtuz. Liburuaren gaiaren adierazbidea da piztiarioa, hortaz, eta «nire hezur arteko zootik ateratzen den emea» agertzea du xede nagusi».

(Epaimahaiaren aktatik)



Nerea Arrien Elordi
(Lekeitio, 1976)

Biokimika eta piano ikasketak.

Lizardi sariaren eskutik etorri zen bere lehenengo liburua: *Pentsatzeko txokoa* (Erein, 2016).

Haur eta gazte literaturan: *Atrapa eguna* (Erein, 2017), *Eskola hodeian* (Erein, 2018), *Etxegabetuak* (Erein, 2020).

Helduen narratiban, *Hirutter nobela* (Erein, 2018), eta nobela eta ipuin-liburu arteko erdibidean dagoen *Jende likidoa* (Erein, 2021).

PAMIELA
argitaletxea

948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com